

**POLIZIA-MEREZIMENDUAK AITORTZEKO ETA ZERBITZUAN HIL DIREN ETA  
ETAK HIL ZITUEN AGENTEEI OMENALDIA EGITEKO EKITALDIA  
ACTO DE RECONOCIMIENTO DE MÉRITOS POLICIALES Y HOMENAJE A LOS  
AGENTES ASESINADOS EN ACTO DE SERVICIO Y ASESINADOS POR ETA**

2024-06-02 Arkaute 02-06-2024

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Lehen lehendakari orde eta sailburu, sailburu ohi, herri agintari eta herri ordezkariok, Segurtasun sailaren eta Ertzaintzaren arduradun eta kideok, jaun andreok, egun on!

Eskerrik asko omenaldi ekitaldi honetan gurekin batera izateagatik.

Ez dira urruti geratzen askatasun gutxiagoko egunak. Ondo gogoan ditugu. Gure betebeharra da garai hura inoiz ere ez ahaztea eta ondokoei herri honetan zer gertatu zen behar bezala transmititzea.

Egun haietan gure herriko ehunka lagunek bizkartzainak eraman behar izan zuen kalera irtetzen ziren bakoitzean: enpresa gizon eta emakumeak, epaileak, kazetariak, politikariak, irakasleak, herriak aukeratutako arduradun politikoak... zerrenda amaiezina zen.

Askatasuna, beraien oinarrizko eskubidea, erabat murriztuta zuten.

Arrazoia argia zen: herri honetan baziren pertsona batzuk objektiboak zehazten zituztenak. Nork bizi behar zuen eta nork ez erabakitzen zutenak, beste batzuek beraien ekintzak babestu eta txalotzen zituzten bitartean.

Euskal gizarteak demokraziaren bidez aurre egin zion ETari. Baita babesa eskaintzen zion munduari ere.

Egun haietan, besteak beste, gure segurtasuna bermatzeko hautua egin zuten Ertzainak jarri ziren lehen lerroan.

Tamalez, batzuek, bere biziarekin ordaindu zuten:

Carlos, Genaro, Juan José, Luis, Alfonso, Joseba, José Luis, Iñaki, Ramón, José María, Jorge, Mikel, Iñaki, Javier eta Ana.

Argi dugu: Izan zinetelako; GAUR, gara.

Hildakoak eta senideak beti gogoan.

GAUR, gogora ekartzen ditugu, baita ere, euren lana betetzen zeudela bizitza galdu edo istripu larriak sufritu dituzten Ertzainak.

Inork ez luke horrelakorik pairatu behar. Hare gutxiago bere jarduera profesionala burutzen dagoen bitartean.

Denok beti gogoan, gure oroimenean.

Hoy, en este acto, último que presidiré como Lehendakari, comparto el recuerdo emocionado de las y los agentes de la Ertzaintza fallecidos en acto de servicio o que vieron arrebatada su vida por la crueldad del terrorismo de ETA.

Este recuerdo y homenaje es un compromiso permanente del Gobierno Vasco y la Ertzaintza con las personas que dieron su vida por nuestro País.

También hoy hemos felicitado y condecorado a las y los agentes de la Ertzaintza que, a lo largo del año, han merecido este reconocimiento, y también a otras personas no miembros del cuerpo de la Ertzaintza.

En todo caso, sois un ejemplo de profesionalidad, compromiso y respeto que honra principalmente a los y a las ertzainas, a nuestra institución.

Eskerrik asko, benetan, guztiei!

Por otra parte, hemos aplaudido y reconocido la trayectoria, el compromiso y servicio al País de Josu Bujanda. Zorionak Josu, eta eskerrik asko urte hauetan guztietan egindako lanagatik!

La seguridad es uno de nuestros bienes más preciados. Un entorno seguro, unas calles seguras, son indispensables para poder desarrollar nuestra vida con tranquilidad.

La sociedad vasca siempre tuvo muy claro que quería depositar la garantía de su seguridad en un cuerpo policial propio. Una policía integral, vasca, que velara por nuestra seguridad y protección.

Esta es una misión que debéis tener siempre muy presente. Es la tarea que os ha encomendado la ciudadanía vasca y a la que, en cada hora, en cada acción, tenéis que responder. Os debéis a este servicio, a esta responsabilidad social.

Hoy compartimos un sentimiento de orgullo.

Sabemos que vuestro compromiso es firme. Sabemos que vuestra profesionalidad es ejemplar. Sabemos, también, que el respeto que sentís por esta institución es enorme.

Este es el camino de compromiso, profesionalidad y respeto que caracteriza a cada Ertzaina. El camino que se construye día a día al servicio de la seguridad y protección de la sociedad vasca.

Gure herriak polizia propioa izatea aspaldi amestu zuen. Ahalegin handia egin ondoren, Ertzaintza berreskuratzea lortu genuen.

Erakunde honen izen ona egunero hobetzeko eta areagotzeko beharra ez da inoiz amaitzen. Etengabeko jarduna da. Zuei dagokizue Ertzaintzaren izen ona harrotasunez eraikitzen jarraitzea.

Eusko Jaurlaritza beti izango duzue alboan, Ertzaintza egunero babesten eta indartzen. Hildako Ertzainak gogoan; gaurko egun berezi honetan, jaso ezazue denok nire aitortza eta esker ona!

Eskerrik asko guztioi eta egun ona izan!